



MONONUKLEOSI INFEKZIOSA MONONUCLEOSIS INFECCIOSA

Zure seme-alabak orain dauzkan sintomak eta zeinuak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **MONONUKLEOSI INFEKZIOSA**.

ZER DA?

Mononukleosi Infekziosoa birusek eragindako infekzio onbera da, ezaugarri hauek dituena: sukarra, amigdalitisa eta gongoil linfatikoen inflamazioa (lepokoak, batez ere). Beste organo batzuei ere eragin ahal die (gibela eta barea, adibidez), baina arina izaten da normalean. Umeen artean txistua trukatzuz kutsatzen da, eta horregatik "musuaren gaixotasuna" izenez da ezaguna.

NOLA IGARRI AHAL DIOT?

Hasieran, umeak sukarrak altua dauka, mina sentitzen du irenstea eta inflamazio handia dauka lepoko gongoiletan. Ematen du betazalak handituta daudela, eta larruzalean orbanak ager daitezke, batez ere umeak aurretik antibiotikoa hartu badu.

Sintoma hauek desagertu eta gero, ume askok ondoeza eta nekea sentitzen dute hurrengo aste edo hilabeteetan.

ZER EGIN BEHAR DUT?

Lehenengo, zuk jakin behar duzu mononukleosiak ez daukala tratamendu espezifikorik, gaixotasun birikoa delako. Hala ere, neurri batzuk hartu ahal ditugu sintomak arintzeko:

- Sukarra eta molestia orokorrak arintzeko erabili ohi dituzun antitermikoak eman ahal dizkiozu.
- Emazkiozu azukredun likido ugari. Ez ahaztu zure umeak mina sentitzen duela irenstea eta horregatik segur aski ez duela jaki solidorik nahi izango.
- Ez da beharrezkoa erabateko atseden, baina ez dira komenigarriak esfortzuak eta kolpeak.

ZERI JARRI BEHAR ZAIO ARRETA?

Umeak honelakorik edukiz gero, pediatarerara edo larrialdietako zerbitzura jo beharko zenuke:

- Arnasa hartzeko zailtasuna: amigdala handi eta inflamatuak zaildu ahal dute airearen sarrera, kasu batzuetan.
- Elikatzeko gauza ez izatea.
- Sabeleko min handia.
- Eta gaixotasunak umeari nabarmen eragin badio, oro har.

Su hijo ha sido diagnosticado de **MONONUCLEOSIS INFECCIOSA**, por los síntomas y signos que ahora presenta.

¿QUE ES?

La Mononucleosis Infecciosa es una infección vírica benigna que consiste en fiebre, amigdalitis, e inflamación de los ganglios linfáticos, sobre todo los del cuello. También puede afectar, generalmente de manera leve, a otros órganos como son el hígado y el bazo. Se contagia por intercambio de saliva de un niño a otro y por ello también se la conoce como 'enfermedad del beso'.

¿COMO PUEDO RECONOCERLA?

El niño empieza con fiebre alta, dolor para tragar e inflamación importante de los ganglios del cuello. Los párpados parecen hinchados, y pueden aparecer manchas en la piel, que serán más probables en caso de que el niño haya tomado antibiótico.

Tras la recuperación de estos síntomas, muchos niños se quejan de malestar y cansancio durante semanas o meses.

¿ QUE DEBO HACER ?

En primer lugar usted debe saber que la mononucleosis no tiene un tratamiento específico, puesto que es una enfermedad vírica. Pero podemos tomar una serie de medidas para aliviar los síntomas:

- Dar los antitérmicos utilizados en otras ocasiones para aliviar la fiebre y las molestias generales.
- Administrar líquidos azucarados abundantes. Tenga en cuenta que el dolor para tragar hará que su hijo probablemente rechace alimentos sólidos.
- A pesar de que no es necesario el reposo absoluto, es conveniente evitar esfuerzos y golpes.

¿QUE DEBO VIGILAR?

Usted debería consultar a su pediatra o nuestro servicio de urgencias si el niño presenta:

- Dificultad para respirar: las amígdalas grandes e inflamadas pueden dificultar en algunos casos la entrada de aire.
- Incapacidad para alimentarse.
- Dolor abdominal importante.
- Y en general si el niño está muy afectado por la enfermedad.